

Gai honetan zer den zientzia eta nola garatzen den ezagupen zientifikoa landuko dugu.

Zientziari eta lan zientifikoan aritzen diren pertsoneri buruz ditugun ideiak azal daitezzen ikus dezagun ondorengoa

1. Kaixo. Ez dakit nor naizen. Zientzialari naizela esan didate, baina ez dakit zer den hori. Nire irudia ere galdu egin dut. Lagun iezadazu arren. Nire nortasuna berreskuratu nahi dut. Horretarako esaidazu nolakoa naizen, zer egiten dudan eta nola betetzen dudan nire lana. Nahi baduzu marraz dezakezu irudia, horrela nolakoa naizen jakingo dut. Mila esker zure laguntzagatik.

2. A! Izena ere behar dut, jar iezadazu bat, mesedez.

3. Esan didate zientzialari batzuk oso ospetsuak izan direla eta direla. Ezagutzen al duzu inor? Nortzuk?. Horien izenak entzunda agian etorriko zait burura nirea.

Esan didatenez hauek dira lan zientifikoak dituen ezaugarri batzuk. Ezaugarri bakoitza genero konkretu bati egokituko al zenioke? Bai? Ez? Zeini?

	BAI	EZ	ZEINI?
Behaketarako gaitasuna			
Zorroztasuna, zehaztasuna			
Objektibotasuna			
Pazientzia			
Hausnarketa			
Sormena			
Antolaketa			
Beste ikuspuntuak onartzeko gaitasuna			

Hara! Zuek esandako guztia entzun eta gero, oraintxe etorri zait burura nor naizen.

A! Nire izena Aida Fernandez Rios da. Biologian Doktorea. Vigoko Itsas Ikerketen Institutuan lan egiten dut.

Nire argazkia hemn duzue.

http://www.carboocean.org/Education_hp/images/AIDA.JPG

5. Zure ustez izan al dute emakumeek oztopo sozialik ikerketa zientifikoan profesionalki jarduteko?

Eta gaur egun ?